

POLITIKA OROKORREKO EZTABAIDA GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAN

Diputatu nagusiaren hitzaldia

Eider Mendoza Larrañaga

2026-09-24

1. SARRERA

Batzar Nagusietako presidente jauna, foru gobernuko diputatuak, batzarkideak, kazetariak eta gaur gurekin zaudeten lagun guztiak, egun on, eta eskerrik asko osoko bilkura honetara etortzeagatik.

Gaurkoa legealdiko politika orokorreko azken eztabaida izango da. Egoeraren diagnosia egin; foru gobernuak abiatutako ekimenen berri eman eta etorkizunera begira ditugun erronkak zuekin denokin elkarbanatzeko mugarri garrantzitsua izango da.

Pozik heltzen diot gaurko eztabaidari, legealdi hasieran markatutako ibilbide orria ondo bideratua dagoelako eta Gipuzkoak dituen erronkei sendo heltzen ari gatzazkielako, elkarlanetik, akordioak bilatuz eta berrikuntza aplikatuz.

Ez da inpresio hutsa.

Datuek frogatzen dute Gipuzkoaren bilakaera ona dela alor ekonomiko eta sozialean, baina ez gara konformatzen badakigulako badaudela gaizki pasatzen ari diren familiak eta enpresak, mundua oso azkar aldatzen ari delako.

Edonola ere, azpimarratuko nuke Gipuzkoa, orokorrean, egoera onean dagoela etorkizuneko erronkei eta gaur egungo mundu aldakorrari heltzeko, azken hamarkadan urrats garrantzitsuak eman direlako.

2. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSIA

Egungo egoeraren diagnosi bat egingo dut datozen minutuetan, non gauden, nondik gatozen eta foru gobernu honek nora joan nahi duen zehazteko.

Abiapuntua argia da: Gipuzkoa Europako puntako herrialdeen pareko da.

Ekonomia eta enpleguari dagokionez, hobekuntza izugarria izan da azken urteotan.

Langabezia tasa %11,5tik erdira murriztu da: %5,3, Estatuko baxuena.

Barne Produktu Gordinaren %27,2 industriari dagokio. Europan, %19.

Esportazioetan historiako datu onenak jasotzen ari gara: 2015ean 7.600 milioi ziren; gaur, 11.500.

Ikerketa eta garapenean egindako inbertsioa %2,74koa da (Europan, %2,24).

15.118 gipuzkoarrek ikerketa eta garapen alorrean lan egiten dute.

Euskadin kokatzen dira Munduko 53 *Ezkutuko Txapeldun*, horietatik 29 Gipuzkoan, erdia baino gehiago. Euren sektoreetan mundu mailako onenak dira.

Per kapita errenta 31.500 eurotik 46.000 eurotara igo da. Hala ere, oso presente daukagu gerra eta krisiek eragin zuzena dutela prezioen garestitzean, eta familia asko zailtasunak izaten ari direla inflazioaren ondorioz. Hipoteken eta lehengai basikoen igoera ondorio zuzenak eragiten ari dira herritarren poltsikoetan.

Aldundiaren zor publikoa 238 milioi jaitsi da hamar urtean. 2016an 570 milioikoa zen eta 332 milioi euroko zorrarekin amaituko dugu urtea.

Honekin guztiarekin ondoriozta liteke Gipuzkoak 2015ean baino ekonomia sendoagoa duela, produkzio handiagoarekin, enplegu gehiagorekin, soldata altuagoekin eta errenta handiagoekin, kanpo-sektore oso lehiakorrekin eta finantza publiko onbideratuekin.

Eta hori ez da kasualitatea: lurraldeko enpresak, eragile nagusiek eta administrazio publikoak diagnosi eta ibilbide orri anbiziotsu partekatu bat abiatu izanak zerikusi zuzena izan baitu. Lan asko egin baita. Azken urteotan elkarlana, akordioak eta etengabeko berrikuntza sustatu izanak ondorio emankorrak izan ditu eta hemendik aurrera ere bide horretan sakontzeko helburu argia daukagu.

Alor sozialean ere aldaketa garrantzitsuak eman dira, Europako gizarte gehientsuenetan bezala, sakoneko eraldaketa prozesu betean gaudelako eta horiei ere elkarlanetik ari gatzaizkie erantzuten.

Inoizko herritar kopuru haundiena daukagu: 733.000 lagun.

Horietatik laurden bat, 65 urtetik gorakoek osatzen dute eta biztanlegoaren %13 atzerrian jaio da.

Europako haur jaiotze tasarik baxuenetarikoa daukagu: 1,3 erditze emakumeko. Erditzen duten hiru amatik bat atzerrian jaioa da eta bigarrena, 40 urtetik gorakoa.

Geroz eta pertsona gehiago bizi dira bakarrik, eta geroz eta familia gehiago dira guraso bakarrekoak.

Bizi itxaropena bi urtean hazi da, 85 urtera arte.

Aberastasunaren banaketa neurtzen duen GINI indizea 23 puntukoa da Gipuzkoan, Europa osoko onenetarikoa. Eslovaquia soilik dago gure aurretik. Eta gure lurraldea da covid-aren ondoren bere posizioa hobetu duen bakarra.

Hauek datu oso onak dira, baina gure gizarteak ez ditu ahazten pobrezia egoeran dauden 42.000 herritarrak. 733.000tik 42.000.

Gaur egungo Gipuzkoa ez da 2015. urteko Gipuzkoa.

Agerian gelditzen da asko eta oso azkar aldatzen ari dela gure gizartea.

Eta erronkak ere sakon aldatu dira.

Duela hamar urte krisi ekonomikoa gaikitzea zen kezka nagusia; gaur, aldiz, etorkizunerako prestatzea, ongizatea bermatzea eta aldaketa demografiko eta sozialei behar bezala erantzutea.

Azken soziometroan argi identifikatzen da horiek direla herritarren kezka nagusiak, eta norbanakoaren kezka konkretuetara jaitsita, etxebizitza, inflazioa, lana, segurtasuna eta osasuna direla desafio nagusiak.

Horiei guztiei erantzuteko aktibatu ditugun politika publikoak eta nola aktibatu ditugun azalduko dut jarraian. Egin duguna bezain garrantzitsua baita nola egin dugun.

3. ERRONKA BERRIEI ERANTZUNAK

Diagnosi horretatik abiatuta, foru gobernu bezala, honako erronketan jarri dugu lehentasuna, datozen urteetan gure ekarpena egiten jarraitzeko:

-Pertsonak ondo zaindu.

-Ekonomia eta industria sendotu, enplegu onak bermatu eta aberastasuna sortzeko.

-Gipuzkoa berde eta urbanoaren arteko oreka landu.

-Etxebizitzaren arazoari aurre egin, elkarlanetik.

-Gipuzkoar berriak ondo artatu eta gizarte kohesioa ondo eraiki.

-Demokrazian urratsak ematen jarraitu.

3.1. ZAINTZAREN LURRALDEA

Gipuzkoak aurrerapauso handia eman du azken hamarkadan zaintza lurralde erreferente bilakatzeko, pertsonak are eta hobeto zaintzeko. Etxean ondo zainduak daudenean bezala.

Aldaketa sakonak bizitzen ari da gure gizartea. Biztanleriaren zahartzeari, gainera, pandemia ostean azaleratutako errealitate berriak gehitu zaizkio desafio bezala, herriz herri antolatzen ari garen Ongizatearen Plazen bidez baieztatzen ari garen bezala. Nahi ez den bakardadea, hauskortasun emozionalaren areagotzea, lotura komunitarioen ahultzea eta familien eraldaketaz ari naiz, besteak beste.

Gure komunitatean antolatzeke eta bizitzeko moduari zuzenean eragiten diete horiek guztiek eta erakunde bezala, egokitu eta erantzun bat eman behar diegu.

Horretan ari gara buru-belarri.

Gaur egun, 34.200 biztanle artatzen ditugu Zainketa eta Gizarte Politiketako departamentutik, eta horietatik 24.100, 65 urtetik gorakoen taldeak osatzen du. Zifra hori, gainera, handitzen ari da etengabe.

Adinekoek argi adierazten dute nola nahi duten zainduak izan: hamarretik zortzik etxean egon nahi du, eta etxean ezin bada, etxean bezala; horri esker autonomia, nortasuna, harremanak eta bizitza beteari eusten diotelako.

Desio horri erantzutea da gure eginbeharra eta, horretarako, hainbat lerro aktibatu ditugu.

Zaintza HerriLab ekimena, adibidez. Aldundiak, gizarte zerbitzu lokalek, Osakidetzak, gizarte eragileek eta komunitateak bat egitea du helburu egitasmo honek, elkarrekin hobeto zaintzeko. Dagoeneko, 32 udalerritan

ditugu aktibo tokiko zaintza ekosistemak, 8.000 erabiltzailerekin, eta helburua da Gipuzkoa osora hedatzea.

Adibide bat ipintzera noa, estrategia honen erakusgarri txiki bat.

Inma Donostiako Martutene auzoan bizi da, bere etxean eta bakarrik, mendekotasun egoeran. Erakundeok, bat eginda, erantzun bateratua eman diogu bere etxean bizitzen jarraitzeko aukera izan dezan. Besteak beste, teknologia txertatu da bere autonomia sustatzeko. Inmak etxeko hozkailuan gailu bat dauka, irekitzen ez bada abisua bidaltzeko. Era berean, etxean edo etxetik kanpo egonda eroriko balitz, arreta berehala jasoko luke eskuan duen erlojuari esker.

Alor horretan, iragarri nahi dut beste aurrerapauso haundia eman berri dugula, Osakidetzarekin elkarlanean, dagoeneko **hasiak garelako ofiziozko mendekotasun balorazioen tramitazioa aktibatzen** ospitaletik ateratzerako, egoera larrienei azkar erantzun eta behar diren laguntzak ahalik eta bizkorren erabakitzeko.

Esate baterako, etxean bakarrik bizi den Pilarrek, erori eta aldaka hautsi du 88 urterekin, ospitaletik ateratzerako, mendekotasun balorazioa egiteko tramitea hasita dauka. Gisa horretan ohe artikulatua eta behar dituen laguntzak bizkorrago jasoko ditu.

Lan egiteko modu horrek inpaktu zuzena dauka erabiltzaileen eguneroko bizitzan eta hobetzen jarraitzeko anbizioa eta indarra ematen digu.

Asko dira **Adinberri Fundazioak** egindako ekarpenak: goizero etxeko salan ariketa fisikoa eta mentala egitea eskainiz ETBko Adinberri saioaren bidez; pertsonen arteko loturak indartuz eta nahi ez den bakardadetik irtetea eskainiz, Hariak estrategiarekin; edo Inmaren kasuan bezala, gailu teknologikoak etxeetara eramanez euren autonomia eta segurtasuna areagotuz.

Jakina den bezala, berrikuntza eta Silver Economyak Pasaian izango du kokalekua, Adinberri poloan. Bitartean, alor honetako enpresak sortu dira eta lanean ari gara SPRIren Trintxerpeko eraikin berrian kokatzeko.

Azpimarratu nahi dut honen atzean Pasaia aldeko apustua dagoela.

Azken urteetan, 13,3 milioitik gorako inbertsioa egin da eta dagoeneko bistakoak dira hobekuntzak Herrerako oinezkoen pasabidean, Ondartxoko pasealekuan eta San Pedroko lonjaren gainekaldean, besteak beste. Gomistegitik Albaolaraino doan pasealekuan sekulako aldaketa lortu da. Eta oraindik gehiago egingo dugu bertan egiten ari

garelako Gipuzkoako Foru Aldundiak azken hamarkadan egin duen inbertsiorik handiena, Adinberri egoitza, 66 milioiko inbertsioarekin. Donibaneko uren saneamentuaren arazoa ere bideratu da, lanak hastear direlarik. Horrek ere garrantzia handia dauka.

Bestalde, Prestazio Ekonomikoaren bidezko Laguntza Pertsonala (PEAP) ere tresna garrantzitsua da, mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzaile pertsonal bat kontratatzeko aukera ematen baitie.

Gaur egun, Gipuzkoan 7.214 lagunek jasotzen dute PEAP-a, eta azken hamarkadan izan duen hazkunde nabarmenak, 3.978 pertsona gehiago, zaintza ereduan ematen ari garen eraldaketa erakusten du. Gero eta pertsona gehiagok dituzte beren bizi-proiektuari eta beharrei egokitutako laguntzak, gainera horiek konbinatzeko aukera izaten dute, arreta pertsonalizatuagoa eta autonomia handiagoa bermatzeko. Etxean, ondo zainduta.

Azpimarratu nahi dut honi guztiari esker, azken hamarkadan lortu dugula egoitzetan sartzeko garaia bost urte atzeratzea, jakinda beren etxean egoten jarraitzea dela adinekoren nahia. Etxean eta ondo.

Hori ezinezkoa denean, bestelako aukera onak daude.

Adibidez, Gipuzkoako **egoitza-sarea**, etengabe indartu eta hobetzen ari garena.

Hamar urtetan sekulako aldaketa egin da egoitza berriak sortuz eta zeudenak eredu berrira egokituz. Betiere, lau ardatzetan oinarritutako lana ari gara bultzatzen bailara guztietan: zainketen pertsonalizazioa, lotura komunitarioa indartu, berrikuntza eta sistemaren jasangarritasuna.

Adinekoentzako egoitzak funtsezko pieza dira zaintza-sisteman, batez ere laguntza jarraitua behar duten pertsonentzat eta gaur egun 5.352 nagusi bizi dira gure sarean. Horietatik, 4.754, hau da %89a, plaza publikoetan. Etxean ondo zainduta bezala.

2015 urteaz geroztik, 4.930 milioi inbertitu ditugu eredu aldaketa eta plaza berrien sorrera ahalbidetzeko eta datozen urteetan beste hainbesteko ahalegina egingo dugu.

Dagoeneko Aldundiko egoitzen sareko 65 zentroen erdian aplikatu dugu eredu berria eta beste erdia, berriz, aplikatzeko prozesuan da.

Emaitza benetan positiboak izaten ari gara.

Hala frogatu da berriki egin dugun ikerketa batean, erabiltzaileen %74,5ak adierazi duelako euren bizitza kalitatea ona dela. Etxean edo egoitzan egonda.

Azpiegitura berriak ere sustatzen ari gara Irun, Elgoibar eta Pasaian. Arbes, Adinberri eta Errezabalekin, 383 plaza gehiago sortuko ditugu, eta birmoldatzen ari garen Txara I, Lasarte-Oria, Azkoitia, Arrasate, Oñati eta Tolosakoekin beste 209. 592 plaza guztira.

Hala, gizarte politiken mapak 2030erako markatutako 757 plazen helburura gerturatzen ari gara.

Izan ere, egoitza berriak egiten jarraituko dugu Urola Erdian, Deban, Donostian, Buruntzaldean eta Urola Kostan. Hala, Gizarte Zerbitzuen Mapan markatutako helburu guztiak beteko dira.

Hori guztia martxan jartzea sekulako lana da inbertsio handiak daudelako atzean. **Gipuzkoa Zainduz** tresna horretarako sortu dugu, helburu duena zainketen eta gizarte babesaren arloan estrategikoak diren inbertsio eta azpiegiturak bultzatzea, lankidetzak publiko-sozialak indartuz.

Dagoeneko abiarazi ditugu Deban eta Urola Erdian egoitzak sortzeko deialdiak, eta hurrengoak datozen hilabeteetan aktibatuko dira.

Horri lotuta, azken bi urteotan, bereziki, tenperatura oso altuko egunak bizi izan ditugu, eta horrek agerian utzi du gure zentroetan konfort klimatikoa eta giroa egokitu beharra. Horregatik, egoera horiei modu sistematikoan aurre egiteko, zentroek muturreko tenperaturen aurrean duten prestaketa eta erantzuteko gaitasuna aztertu eta hobekuntza-plana garatzen ari gara.

Gure zaintzapean dauden pertsonen ongizatea eta egiten dugun lanak euren bizitzetan duen inpaktua neurtzeak berebiziko garrantzia daukala uste dugu, politika publikoak hobetzen jarraitzeko funtsezko erreminta delako ebaluazioa. Ildo horretan, Zainketa eta **Gizarte Politikak Ebaluatzeko Agentzia** eratu berri dugu. Europako lehenengoa arlo honetan.

Zalantzarik gabe, Gipuzkoa gizarte politiken aitzindaritzan dagoenaren beste adibide bat. Ebaluzioa politika publikoetan. Ebaluzioa gizarte zerbitzuetan. Honek sistema hobetzen lagunduko digu.

Puntu honetan, zaintza lanak burutzen dituzten langileen jarduna azpimarratu nahi dut, haien egunerokoa delako, hemen aipatutako

berrikuntzekin batera, erabiltzaileen bizitza hobetzea ahalbidetzen duena. Eskertu nahi diet euren lana, nola zaintzen dituzten adinekoak.

Hori dela eta, sektorean nagusi den sindikatuari arduraz joka dezala eskatu nahi diot, eraginkortasun orokorreko hitzarmen bat lortzea benetan albiste ona litzatekelako Gipuzkoa osoarentzat. Aldundia bidelagun izango da beti.

Beharrak geroz eta handiagoak dira; geroz eta biztanle gehiago artatzen ditugu denbora luzeagoan; eta zerbitzuak geroz eta pertsonalizatuagoak egiten ari gara, bakoitzaren desio, behar eta nahiei erantzungo dietenak. Ahalegin konpartitu handia da eta merezi du lan honek. Eta gure ardura da etorkizunean ere ahalegin hori egiteko modua bermatzea.

Gure adinekoei ondo zainduak izango direla ziurtatu behar diegu, eta zainketa lanetan ari diren milaka herritarrei lasaitasun mezua helarazi, gero eta behar gehiago duen sistema honen etorkizuna ziurtatu.

Eta gauzak diren bezala esan. Guk ardura daukagu, gure egiten dugu eta herritarrei egia esaten diegu: honek ahalegin partekatu izugarria eskatzen du eta gehiago eskatuko du etorkizunean. Argi daukagu zein den egoera, zein izango den eboluzioa eta irtenbideak bilatzen ari gara etorkizunean ere horri guztiari eutsi ahal izateko.

Datu bat emango dut egoeraren dimentsioa azaltzeko: Gizarte ikerketetan aditu den Siis-ek argitaratutako txostenaren arabera, 2000 eta 2023 urteen artean %64 hazi zen 75 urtetik gorako pertsonen zaintzara bideratutako inbertsioa: 2.222 milioitik 3.640 milioitara. Gure aurrekontua ere, %76 hazi da azken 11 urteotan, 2015etik gaur arte.

Zaintza doako egingo dutela esaten dutenen aurrean, guk, zintzo jardungo dugu. Ez dago. Ez dugu sortzen nahikoa baliabide guztion artean, hau guztia partekatua ez bada.

Gobernu hau lanean ari da hirugarren sektoreko eragileekin kontratu sozial berri bat lantzeko, elkarlanetik, etorkizuneko zainketen inguruko adostasun handia lortzeko, eta dei egiten diegu Batzar Nagusietako talde guztiei prozesuarekin bat egin dezaten. Gaia nahikoa garrantzitsua da banatzen gaituzten horiek alde batera utzi eta batzen gaituzten horietatik elkarrekin eraikitzeko.

Zaintzaren etorkizuna herri gisa dugun erronka nagusietako bat da, eta ahalik eta adostasun handiena behar du.

En 10 años hemos invertido casi 5.000 millones en el cambio de modelo de cuidados en Gipuzkoa, creando nuevas residencias, adaptando las existentes y configurando un sistema más personalizado y abierto a la comunidad. Y seguimos con la ambición de seguir mejorando, con el reto de buscar un amplio consenso en torno a la sostenibilidad de las políticas sociales. Invito a todos los grupos junteros a dejar de lado lo que nos separa y centrarnos en lo que nos une, para garantizar, desde la colaboración, el modelo de los cuidados del futuro.

Guk defendatzen dugun zaintza eredua prebentzioan eta komunitatean oinarritutako sistema indartzean datza, erantzunkizuna erakundeen, hirugarren sektorearen, komunitatearen eta familien artean. Adinekoek eskatzen dituzten autonomia, euren iritziak kontuan hartzea eta komunitatearekin loturak bermatzen dituen.

Benetan espero dut eredu horren defentsan bat egingo dugula guztiok.

Zaintzen arloan adineko pertsonen zaintza beharrei erantzuteak gure jardunaren zati handi bat hartzen badu ere, ezin ahaztu kalteberatasun edo hauskortasun egoeran dauden eta artatzen ditugun beste hainbat kolektibo: desgaitasuna duten pertsonak, buru osasun arazoak dituztenak, babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoak, -900 Gipuzkoan-, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak, eta bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenak, esaterako.

Eredu aldaketa kolektibo guzti hauen zainketa eta laguntzara ere heldu da.

Bakoitzari behar duen laguntza emateko, izan etxean, izan egoitzetan, izan apartamentu tutelatu edo eguneko zentro eta arreta zerbitzuetan. Pertsona bakoitzaren autonomia babestu behar dugu, dituen beharrei erantzun, familiak zaindu, babesa eman eta, azken finean, egoera konplexu eta zailetan dauden pertsonak lagundu.

Horretarako, honako ekimen hauek abiatu ditugu, hirugarren sektorearekin elkarlanean:

- Cita Go On alzheimerren prebentziorako zentroa. Aditzera ematen dut estrategia hau borobilduko dugula laster Donostian narriadura kognitiboari arreta emateko erreferentziazko egoitza berri baten sorrerarekin. Garrantzia handia ematen diogu hau prebentzioa delako.

- Boluntariora indartzeko estrategia.

- Harrera familia espezializatuen programa.

- Indarkeria Matxistari aurre egiteko erakunde arteko mahaia.
- Biolentzia matxista pairatu duten emakume eta haien haurrentzako Urrats berria zentroa.
- Hariberriako zentroak sexu indarkeriaren arretarako.
- Arrimu programa kontsumo eta buru nahasmen arazoak dituzten pertsonentzat.
- Bizimodu independenterako programa desgaitasuna duten pertsonentzat.
- Zarautz Oinarrian egitasmoa bazterkeria egoeran dauden lagunentzat.
- **Goizabegi** estrategia etxegabeentzako harrera inklusiborako.

Azken honi helduz, azpimarratu nahiko nuke nabarmen aldatzen ari dela etxegabeen profila, eta gai izan behar gara errealitate honi ere modu koordinatuan erantzuteko, pertsona hauek babes sisteman sartu eta lanaren bidez etorkizun ona izan dezaten eta ekarpena egin dezaten, komunitatearen parte izan daitezen.

Jakina den bezala, Europara etorkizun hobe baten bila datozen milaka gazterentzat igarotze lurralde da Gipuzkoa, baina azken urteetan aldaketa nabarmena gertatzen ari da, igarotzen ari diren horietatik batzuk gurean gelditzea erabakitzen dutelako.

Etorkizun oparo baten bila gurera datozen gazteen errealitatea kudeatzen ari gara, hori ere badelako ardurak gure gain hartzea. Eta gauzak ondo egin behar dira. Lanerako eskubidea bermatzen duen baimena lortzeko epea ezin da bi urtera arte luzatu. Funtsezko diren eskumenak behar ditu Euskadik: bizileku- eta lan-baimenak eta prestakuntza-tituluen homologazioa, besteak beste.

Badakigu migrazioaren fenomenoari ezingo zaiola egun batetik bestera erantzun. Baina errealitate honi heldu egin behar diogu.

Urteak daramatzagu interbentzio goiztiarrak eta harrera inklusiboak lantzen. Aldunditik hiru oinarritan ari gara lanean: oinarrizko beharren koberturan, autonomiarako beharrezko palankak aktibatzen eta komunitate eta laguntza sareak indartzen.

Adinez nagusi direnen kasuan, bizitza duina bermatzeko modu onena lan merkaturatzea erraztea da. Horregatik, duela zazpi urte, Elkar Ekin Lanean aktibatu genuen. Orain arte, programa honi esker, 6.500 lagunek lan

munduratzeari lortu dute Gipuzkoan, urtero, 1.000 inguru, bazterkeria ekidinda.

Hamarretik zortzi atzeritarrak ziren eta ibilbide pertsonalizatu bat izan dute formazioa jaso, haien egoera erregularizatu, praktikak egin eta kontratu bat lortu arte. Horietako asko lan-esku falta dagoen sektoretan ari dira lanean.

Bide honetatik jarraituko dugu.

Jarraian, gazteen ongizate emozionala eta proiektio-zailtasunei aurre egiteko bideratzen ari garen estrategiaz arituko naiz.

Azterketa bat burutu dugu gure lurraldean, 8 eta 14 urte bitarteko 13.879 adingaberekin. 75 ikastetxe eta 86 herritakoak ziren, Gipuzkoan adin tarte horretan dauden gazteen hirutik bat. Aitortzen digute ongizate-maila handia dutela: 10etik 9,1ekoa. Baina tristura, nekea eta estresa bezalako kontzeptuak ere agertzen dira ikerketan.

Gure gazte eta nerabeak antsietatea, presio akademikoa eta soziala, hiperesposizio digitala, etorkizuna irudikatzeko zailtasuna, krisi-egoerak, nahi ez diren bakardadeak, loturen galera, lan-prekarietatea, etxebizitzaren problematika eta akidura emozionalaren sententzioa pairatzen ari dira. Hala adierazten digute herriz herri antolatzen ari garen Ongizatearen Plazan.

Hau ongizate emozionala da eta lagundu egin behar diegu.

Argi ikusten da kalitatezko aisialdia eta lagunarte sendoak izatea direla garrantzitsu adin tarte horietan. Horregatik, Jolashezi programa bultzatzen jarraituko dugu txikiak kirol praktiketara hurbiltzeko eta Multikirolaren inguruan Batzar Nagusi hauek egindako hausnarketaren ondoren, finantza-ahalegin historiko bat egin dugu, (aurten ia 4 milioi eta 2027an, beste hainbeste) eskola-eredu malgu, unibertsal eta publiko baterantz aurrera egiteko.

Prebentzioan ere lan handia egiten ari gara Nerabeak Programaren eskutik, bikote harreman ez egokiak identifikatu eta lantzeko. Izan ere, Bost urtetan 124 gazte atenditu ditugu; horietatik 27, aurten.

Kezka handia daukagu sexu-askatasunaren aurkako delituak %20 igo direlako Gipuzkoan gazteen artean. Hau izugarria da eta denok interpellatzen gaitu. Prebentzio lan hau nuklearra da.

3.2.EKONOMIA ETA INDUSTRIA SENDOTU

Ekonomia eta industria sendotzea da bigarren helburu nagusia, Gipuzkoak jarrai dezan izaten enplegu onak eta bizitza eta enpresa proiektu sendoak eskaintzen dituen lurralde oparoa.

Alor honetan ere, erronka itzela daukagu gure ehun ekonomikoa eraldaketa digital, teknologiko eta energetiko betean murgilduta egonik, geopolitikak eragindako ziurgabetasun egoera berriak gehitu zaizkiolako azken garaian.

Gipuzkoan 26.000 enpresa eta 25.000 autonomo ditugu eta egoera oso aldakorra da askorentzat, ekonomiaren argazkia segundotan aldatu daitekeelako. Enpresa eta erakundeok gai izan behar dugu azkar erantzuteko.

Gero eta gehiago dira aurre egin beharreko desafioak, bai arlo makroekonomikoan eta baita familia eta norbanakoetan ere.

Gurean mundu mailan bereziak diren ezaugarri paregabeak ditugu: industria-dentsitate handia, enpresa ertain eta txiki espezializatuak, nazioarteko presentzia duten enpresa bultzatzaileak, zentro teknologikoak, unibertsitateak, lanbide-heziketa eta ezagutza eta ekoizpena hurbiltzen dituen lankidetzakultura.

Hemen industria ez da beste sektore soil bat. Hornidura-kateak egituratzen ditu, zerbitzu aurreratuen eskaria sortzen du, esportazioei eusten die eta jarduera lurraldean zehar banatzen du. Horregatik, gure industriaren pisua Europako erreferentziaren bikoitza da gutxi gorabehera.

Gipuzkoako industriak lehiakor izaten jarraitzeko bidelaguntza behar du. Eta gure lurraldeak etorkizuneko sektoreetan egon beharra dauka. Gipuzkoako Foru Aldundiak estrategia osoa hedatu du azken hamarkadan lurraldeko ekonomia ehunaren eskutik, puntako diren sektoreetan urrats kualitatibo izugarria ematea ahalbidetu diguna.

Etorkizuna Eraikizen baitan abiatu ditugun estrategiak zerrendatuko dizkizuet jarraian:

Mugikortasun adimentsu eta jasangarriaren alorrean. 2018an ideia estrategiko bat izatetik, 2026an erabat operatibo dagoen zentro teknologiko eta industrialak izatera igaro da. Europan parekorik ez daukana.

Izan ere, gaur egun, 25 milioiko inbertsioa, 9.700 metro koadroko azpiegitura eta 80 lanpostu, 8 enpresa eta 2 gestore teknologiko kokatzen dira bertan, bezeroak hemengoak eta nazioartekoak direlarik.

Datorren urtean MUBIL poloak eraikin berri bat izango du, beste 10.000 metro eta 200 lanposturen sorrerarekin.

Ekosistema oso bat eratu da, enpresak, zentro teknologikoak eta unibertsitateak biltzen dituen eta mugikortasun iraunkorren espezializatutako inbertsioa eta talentua erakartzea ahalbidetu duena. Automobil sektorean gainera, benetako zailtasunak jasaten ari den alorrean.

MUBILen bidez, mugikortasun elektriko, konektatu eta iraunkorraren ateak zabaldu zaizkio gure industriari.

Kuantikarena da aipatu nahi dudana bigarren sektorea, erreferente bilakatzen ari den gaituena. Urtetako erakundeek elkarlanari esker, iaz iritsi zen Donostiara munduko IBMren superordenagailu kuantikoa, enpresa, unibertsitate eta ezagutza kate osoari konektatuta dagoen azpiegitura aitzindaria.

Teknologia kuantikoa gure industria sareari eta enpresei heltzeko ahalegin handia egiten ari gara.

Legealdi honetan, Gipuzkoa Quantumeko deialdiek 5 milioi euro inguru mobilizatu eta 98 erabilera kasu finantzatu dituzte, enpresek, zentro teknologikoek eta unibertsitateek teknologia horien aplikazio zehatzak esploratzea ahalbidetuz. Proiektu-eskaeren kopurua %53 hazi zen iaz, 2024arekin alderatuta.

Halaber, start up-ak mentorizatu eta azeleratzeko programa aktibatu dugu CDLren eskutik. Honek sekulako garrantzia dauka.

Gipuzkoa erreferentziazko ekosistema bilakatzen ari da kuantika eta adimen artifizialaren alorrean eta horrek gure proiektu globala indartzen du. Bide hori egokia da eta erakargarria proiektu eta pertsonentzako.

ZIUR ere emaitza oso onak ematen ari da.

Zazpi urte hauetan 700 enpresekin lan egin da. Bere laborategiak 400 konpainiari eman die zerbitzua. Aurten, produktu konektatuetarako eta tokiko ebaluazio-ahalmenetarako erregulazio-prestakuntza eskaintzen hasi da ZIUR eta 3 milioi euroko azelerazio-programa bat sustatu dugu,

produktu konektatuen zibersegurtasunari buruzko Europako araudi berria betetzen laguntzeko enpresei.

Konektatutako produktu industrialak ebaluatzeko tokiko gaitasunak sortzen ari gara lurraldean, kanpoko zerbitzuetara jo beharrik gabe.

Gipuzkoako Fabrikazio Aurreratuaren Campusa, AFM, Elgoibarko IMHrekin eta Danobatekin batera berrikuntza eta prestakuntza industrialak sustatzea helburu duena. Ekimen hau Gipuzkoako bilakaera ekonomikoaren metafora indartsua da. Makina-erreminta baten sendotasuna eta robot baten malgutasuna konbinatzen ditu. Proiektua, 1,25 milioi euroko foru inbertsioarekin, urtearen amaieran hasiko da lanean eta ekarpen handia egingo dio sektoreari.

Deep Tech alorrean ere jauzi kualitatibo nabarmena ematen ari da Gipuzkoa eta hor kokatzen da Kutxa Fundazioarekin batera abiatu dugun deep tech ekintzailatza programa, zientzia oso aurreratua enpresa proiektu bilakatzeko.

Orain arte aipatutakoak azken urteetan erein eta dagoeneko loratu diren edota loratzen ari diren proiektu estrategiko eta sektore garrantzitsuenak dira, baina bada beste bat hazia bota duguna eta datorren hilabete eta urteetan ikaragarritzko zabalkundea izango duena: **Biofoundry-ena**. Robotika, adimen artifiziala, softwarea eta biologia molekularra konbinatzen dituzten laborategi automatizatuak ari naiz, eskala handiko sistema biologikoak diseinatu, eraiki eta probatzeko balio dutenak.

Gipuzkoak urteak daramatza biozientzien alorrean urrats esanguratsuak ematen. Biodonostiatik hasi eta Onkologikoraino, Miramonen garapen ikaragarria eman da azken urteotan eta horren segida dira mundu mailan parekorik ez daukaten farmazeutikoen iritsiera eta gaur egun Ilunben eraikitzen ari den bio poloa, esate baterako.

Biofoundry-en gune estrategiko berria Irunen kokatuko dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiak Irunen aldeko apustua egin du, Irunen kokatuko du proiektu estrategiko berria 1.000 metro koadroko azalerako espazio batean.

Proiektu estrategiko honi esker, lurraldeak punta-puntako azpiegitura zientifiko eta teknologiko berria izango du, ikerketa aplikatua bultzatzeko, BIO arloko irtenbide berriak garatzeko eta horiek enpresa-sarera azkarrago transferitzeko. Terapia aurreratuak hizketan ari gara, medikuntza pertsonalizatuak, bio osasunak, bioteknologiak, jakien

ekoizpenaz... ehunka lanpostu on sortuko dira, start upak ugaritu eta inbertsioa erakarri.

Estimazioen arabera, Gipuzkoan 1.000 lanpostu sortuko dira datozen urteetan sektore honetan. Baina apustua ez da kuantitatiboa soilik, kualitatiboki ikaragarria izango delako. Gure industriari bata zuria janzteko prozesua ahalbidetzen ari gara.

En el ámbito de las biociencias, estamos a punto de dar un salto de gigante con la creación, en Irún, de un proyecto estratégico vinculado a las biofoundry-es, fabricación de sistemas biológicos a gran escala, con la creación de 1.000 puestos de trabajo de calidad. Estamos hablando de medicina personalizada, de salud bio, de biotecnología y de la producción de alimentos. Gipuzkoa lleva años avanzando en el ámbito de las biociencias, apostando también por la industria de la bata blanca, dando un paso significativo en la sofisticación de los sectores estratégicos.

Ekintzailetza eta berrikuntzaren alorrean, BIC Gipuzkoa Ilunbera igarotzeak hazkunde eta espezializazio fase berri bat zabalduko du. Izan ere, proiektuak inkubatu eta hazteko aukera gehiago eskainiko da eta sektore estrategikoetan jauzi handia emango da, ekosistema zientifiko, teknologiko eta enpresa sarearen arteko harremana sendotuz.

Azken 10 urteetan, BIC Gipuzkoan, 460 enpresa berritzaile sortu eta finkatu dira. Enpresa horiek eratu zirenetik bederatzi urtera %80ko biziraupen-tasa izan dute, 3.243 lanpostu sortu dituzte eta inbertitutako euro bakoitzeko 71,25 euroko itzulera zenbatetsia izan dute. Iaz, konkretuki, 52 proiektu enpresa bilakatu ziren. Sekulako ekarpena egin dio lurraldeari.

Ekonomia eta industria eragileak ondoan ditugu; uneoro ari gara haien proiektu eta kezka nagusiak ezagutzen, administrazioetik egin dezakegun oro aktibatzekeo jarrerarekin, beti. Ezagutzen ditugu egunerokoan sektore asko eta askotan talentua erakartzeko, laneskua lortzeko eta absentismoa ekiditeko enpresek dituzten arazoak, besteak beste.

Eta elkarlan horretatik abiatuta aktibatu ditugu langileen parte hartzea bilatzen duten neurri fiskalak, inbertsio funtsak aktibatzekeo estrategiak bai eta talentua erakartzeko neurri sorta ere.

Eta gure egiten dugu autonomo, ekintzaile eta lehen sektoreko baserritarrek burokrasia sinplifikatzeko egiten diguten eskaria. Ondoan gaude, ulertzen ditugu eta lanean ari gara hobetzeko.

Horren adibide da urtero Ekonomia Sustapenetik bideratzen diren diru laguntzak errotik aldatu izana, gauzak asko errazten, ulermenetik tramitaziora. Hala adierazi digute onuradunek, enpresa ertain eta txikiek.

Haiek eskatuta, autonomoei zuzendutako diru laguntza lerroa ere hobetu dugu eta ekintzaileei bideratutako laguntzak ere eraldatu dira.

Tokiko merkataritza eta artisautza ere babesten jarraitzen dugu, digitalizazioan eta diferentziazioan urratsak ematen jarrai dezaten. Gure kale eta auzoen bizitza eta identitatearen parte garrantzitsua direlako eta etorkizunean ere hala izaten jarraitzea nahi dugulako. Eta horrek eskatzen du guztion konpromisoa.

Fiskalitaterik ere etengabeko hobekuntza egiten ari gara egoera eta errealitate ezegonkorrei elkarlanetik erantzun eta enpresa eta familiei laguntzeko. Fiskalitatea, bi helbururekin: batetik, zerbitzu publikoak eskaintzeko baliabideak sortzea eta, bestetik, eragiteko tresna gisa erabiltzea.

Abiapuntu gisa, fiskalitate eredu erabat progresiboa dugu. Zergadunen %25ek egiten du ekarpenaren %75a.

Gainera, modu estrukturalen, **Ogasunetik urtero 2.800 milioiko gastu fiskala egiten dugu norbanako eta enpresak laguntzeko.**

Enpresen kasuan, besteak beste, familia enpresen erreleboaren jarraitutasuna bermatzeko langileen parte hartzea sustatzen duten pizgarriak. Duela hamar urte 147 kasu genituen; gaur, 895, 919.000 eurotako kenkariarekin.

Enpresen lehiakortasuna eta langileen kontziliazioa eta zaintza eskubideak sendotzeko neurriak onartu ditugu azken erreforma fiskalean, besteak beste.

Koiunturalki ere neurri sorta zehatzak hartzen ditugu, egoeraren arabera, bisturiarekin bezala. Hala egin genuen, udaberrian, Ekialde Hurbileko gerratearen ondorioz gure enpresetan sor litezkeen ondorioak gutxitzeko neurri sorta abiatu genuenean.

Enpresa txiki, ertain eta autonomoei zuzenduta, zerga-zorrak atzeratzea, PFEZaren ordainketa zatikatuen salbuespena eta enplegua sortzeagatik aplikatzen den kenkaria handitzea ahalbidetu genuen, besteak beste. Guztira, 1.305 eskari jaso genituen 22 milioiekin.

Udaberrian ere, BEZaren itzulketak ere ohi baino azkarrago bideratu genituen enpresei likidezia eskaintzeko. 155 milioiko likideziaz hitz egiten ari gara.

Baina fiskalitatea ez da enpresei laguntzeko tresna soilik. Herritarren eguneroko ekonomian eta familien poltsikoan ere eragin zuzena du.

Horren adibide argia da elikagai askori eta, azkenaldian, erregaiei aplikatzen zaien BEZ murriztua. Neurri horrek 1.500 milioi euroko gastu fiskala dakar Aldundiarentzat, herritarren eguneroko gastuei eusten laguntzeko.

Eta familien kasuan, bereziki esanguratsua da PFEZaren bidez egiten dugun ahalegina: urtero 890 milioi euro itzultzen dizkiegu familiei.

Kopuru horren barruan, bereziki azpimarratu nahi ditut seme-alaben, adinekoen eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzarekin lotutako 220 milioi euroak, edota etxebizitzara bideratzen ditugun 206 milioiak. Geroago garatuko ditut azken horiek.

Izan ere, ez gara soilik diru-bilketaz ari: familien ekonomiaz, zaintzaz eta herritarren eguneroko ongizateaz ere ari gara. Fiskalitatea haiei laguntzeko erabiltzen dugu.

Eta laster, ondo dakizuen bezala, beste neurri fiskal multzo bat ekarriko dugu Batzar Nagusi hauetara, enpresen jarraitutasuna, langileen parte-hartzea, profesionalak erakartzea, gazteen enplegua, zainketak eta abusuak jasandako biktimen erreparazioa sustatzeko.

Disponemos de herramientas y queremos seguir siendo aliadas de la economía, porque creemos que Hacienda debe ser un aliado estratégico del crecimiento económico. Les tiendo la mano para mejorar conjuntamente la propuesta y sacarla adelante por el bien de nuestro territorio.

Quisiera destacar dos ideas respecto al Departamento de Hacienda y Finanzas.

La primera es que, gracias a una gestión rigurosa durante los últimos años, **la deuda de la Diputación Foral de Gipuzkoa se ha reducido casi a la mitad**. En 2016 ascendía a 570 millones de euros y, según las previsiones, este año concluirá con una deuda de 332 millones, equivalente a 453 euros por habitante, casi un 42 % menos que hace diez años.

La situación financiera de la administración está, por tanto, plenamente saneada, lo que nos permite actuar con rapidez cuando es necesario para apoyar al territorio, a los agentes económicos y a las familias.

La segunda idea es que nuestro Departamento de Hacienda y Finanzas fue pionero en la implantación del sistema **TicketBAI**. Tras un despliegue progresivo, actualmente se reciben un millón de facturas diarias en Errotaburu y el sistema está plenamente consolidado y normalizado, constituyendo un avance significativo en la digitalización de nuestra economía. También aquí Gipuzkoa ha sido pionera.

Todo ello facilita enormemente el trabajo de empresas y personas autónomas.

Queremos seguir siendo una administración eficaz y transformadora. Capaz de aportar beneficios al territorio y a sus agentes desde nuestras competencias. Por ello seguiremos protegiendo a las familias y defendiendo a las empresas, uno de los pilares de nuestro bienestar adoptando las medidas necesarias y respaldando las infraestructuras clave para la competitividad de Gipuzkoa.

Me refiero al **Tren de Alta Velocidad**. Porque Gipuzkoa y Euskadi no pueden esperar más a esta infraestructura tan relevante para la vertebración, la competitividad y la descarbonización de nuestro país. Han pasado 30 años desde que el Gobierno español impulsó el proyecto y, desde entonces, gobiernos de un color u otro, han excluido a Euskadi y Gipuzkoa de sus prioridades relativas al TAV. Impensable para un país avanzado como el nuestro. Por ello, solicito al Ministerio que acelere las obras a través de la conexión por Ezkio. Porque se trata de una infraestructura de enorme importancia para Gipuzkoa y para nuestro País. No hay excusas.

Azpiegiturekin jarraituz, gure eskumenetatik, ahalegin handia egiten ari gara bide azpiegituren bidez herritarren egunerokoa hobetzeaz gain gure ekonomiaren lehiakortasunarentzat funtsezko elementu direlako.

Errepide sare nagusia osatuta, Bide Azpiegituren departamentutik **zubi eta igarobideak berritzeko plana** abiatu eta hainbat hobekuntza aktibatu ditugu, 23 milioiko inbertsioarekin.

Nafarroarekin konektatzen gaituen **A-15 autobideko zortzi tunelak** ere erabat berritzea lortu dugu, 100 milioitik gorako inbertsioarekin.

Loiolako zubibidea eraberritzeko konponbidean ere aurrera egin dugu; erronka tekniko eta ekonomiko horrek 50 milioi eurotik gora irits daitekeen inbertsio bat eskatuko du.

Poligonoetarako sarbideei eta lotura estrategikoei dagokienez, Eskuzaitzeta eta Itziarko industrialdea, gauzatuta daude dagoeneko, eta Zarauzkoa laster bukatuko da 20 milioiko inbertsioa egin ondoren. Ildo beretik doaz Zizurkil eta Asteasu arteko hobekuntza proiektuak, Alkizako bidegurutzeko biribilgunea eta Olentzoko bidegurutzeta.

Helburu hori bera du Adunako errepidearen trazadura hobetzeak, zeinak 7,5 milioiko aurrekontua baitu; errepide hori alternatiba gisa erabiliko da N-I errepidean gorabeheraren bat dagoenean, eta industrialdeari zerbitzua emango dio.

Gipuzkoako errepide sarea modernizatzen jarraitzeko, AP-8an trazadura hobetzeko azterlana eta plangintza bultzatu dugu, segurtasun eta arintasun handiagoa emango duen lekuetan; halaber, GI-631 errepidea Urretxu eta Azkoitia artean berritzeko bigarren fasea egin dugu, eta baita Marrutxipiko lotune berria ere, GI-20 errepidean.

Era berean, Andoainen N-I eta A-15 errepideen arteko lotura berria lantzen hasi gara, trafikoak herritarren ongizatean duen eragina murrizteko irtenbideak txertatuz. Irtenbideak bilatzen saiatu gara, konponbide bideragarri eta onuragarriagoa lortzeko. Oinarri horren gainean, andoaindarrei hobekuntza esanguratsuak dakartzkien esku-hartze bat planteatzen da, Gipuzkoan inoiz egin den inbertsiorik handiena eginda: 140 milioi euro.

Gobernatzeko erabakiak hartu behar dira. Eta, batzuetan, erabakirik okerrena, inolako erabakirik ez hartzea da. Andoainen kasuan, ezer ere ez egiteak mugikortasunari, bide segurtasunari eta inguruko bizi kalitateari eragiten dien egoera bati eustea ekarriko luke. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu aurrera egitea eta Udalari eskatzen diogu modu proaktiboan sar dadila errepideaz haratago doazen gaien definizioan.

Bestalde, Bidasoan erakundearteko mahai bat jarri genuen martxan Irungo eta Hondarribiko udalekin. Mahai horretan zenbait jarduketa adostu ziren eta bi urte baino gutxiagoan erritmo onean doaz aurrera. Azken Portuko biribilgunea egiten ari gara; Amutekoa, esleituta; Hondarribia eta Amute arteko bidegorria, lizitatzeko zorian; Amutaldeko saihezbidea, izapidetzen ari da; eta Arbes-Oñauze konexioa, idazteko fasean. Datozen hilabeteetan aurrera egingo dugu, halaber, Jaizubia eta

ospitaleetako biribilgunearen arteko GI-636 errepidea hobetzen, bai eta Zubimuxu inguruko alternatibak aztertzen ere. Horrek guztiak 50 milioi eurotik gorako inbertsioa dakar.

Herri txiki eta auzoetan ere ari gara proiektu sendoak burutzen, alkateekin izaten ditugun bileretan jasotako eskakizunei erantzunez. Herrira iristeko zeharbideetan, autobus geltokietan eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbide seguruetan ari gara lanean, eguneroko bizitzan eragin handia duten jarduera txikietan. Berrobi, Ataun, Abaltzisketa, Zerain, Hondarribiko Guadalupen, Mutriku, Bedoña Arrasaten, Albistur, Beizama, Bidani-Goiatz, Amasa-Villabona, Zizurkil, Ibarra, Alegi, Ikaztegieta, Mendaro, Elgoibar, Zestoa, Berastegi, Ordizia, Arama, Leaburu, Deba, Aretxabaleta eta Elgoibarren ditugu hobekuntzak, besteak beste. 7,5 milioitik gorako inbertsioarekin.

Bide azpiegiturekin jarraituz, errepideak adimendun eta digital bilakatzeko egiten ari garen lanaren berri emango dizuet. Dagoeneko hasiak gara AP-8 eta AP-1ean informazioa helaraziko duten balizak jartzen eta urte amaierarako, N-1 eta A15ean ere jarriko ditugu. Era berean, ibilgailu kamikazeen prebentzio sistema, teknologia berrietan oinarritua, 2026an zehar jarriko da abian.

Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, Foru Aldundia lanean ari da istripuak gertatzen direnean ibilgailuak errepidetik kentzeko zerbitzuak bultzatzeko. Neurri hori garrantzitsua da, auto ilarek eragin zuzena baitute lurraldearen ekonomian eta herritarren egunerokoan.

Eta atal hau Bidegiren eginkizunak duen balioa azpimarratzen amaituko dut. Izan ere, aipatutako guztia Bidegiri esker egin ahal izan da, une garrantzitsuetan Aldundiaren ardura beren gain hartu zutenen ikuspegiaren eta ausardiaren ondorioz. Gipuzkoan, eredu horrek aukera ematen du lehen mailako azpiegitura sareari eusteko eta, aldi berean, 241 milioi euro bideratzeko funtsezko beste politika publiko batzuetara.

En carreteras, hemos realizado muchas actuaciones como la renovación de los túneles de la A-15, la puesta en marcha de los proyectos que mejorarán sustancialmente la circulación por Andoain y Bidasoa y los 7.5 millones de inversión en pueblos pequeños. Resaltaría que estas actuaciones son posibles gracias a la solvencia de Bidegi.

Zati hau amaitzeko, garraio publikoaren aldeko gure apustua berretsi nahi dut, Lurraldebusek azken hamarkadan izan duen etengabeko hazkundeari erreferentzia eginez. Datuei erreparatzen badiegu

Lurraldebusek aurrekaririk gabeko hazkundera izan du hamarkada honetan: 2015ean 22,7 milioi bidaia egin zituen, eta 2025ean, berriz, 31,2 milioi. Eta bada arrazoi bat, hazkunde hori azaltzen duena: inoiz ez da legegintzaldi honetan beste inbertitu zerbitzua sustatzeko.

Izan ere, 2026an inbertitu da diru gehien Gipuzkoako historian (68,4 milioi euro). Herritarren eskariei erantzunez, linea berriak aktibatu ditugu gainera, Astigarragatik Ospitaletara eta unibertsitatetara; Oiartzundik Ospitaletara eta Eskuzaitzetako poligonora, besteak beste.

Aretxabaleta, Leintz Gatzaga eta Debagoieneko beste zenbait herrietan ere hobekuntzak egin ditugu, gure asmoa delako herritar orori eskaintzea garraio publiko bidez mugitzeko aukera. Eskuarlean ditugun hurrengo erronkak dira MUGI birtuala aktibatzea eta ordainketak txartel bidez ahalbidetzea Lurraldebuseko garraio guztietan. Izapideak bide onetik doaz eta datozen hilabeteetan albiste onak izatea espero dugu.

Bidegorrien inguruan ere urrats esanguratsuak eman ditugu Gipuzkoa osoan barrena, legealdia amaitzerako 440 kilometroko sarea osatuko delarik.

Azken hiru urtetan 25 milioi inbertitu ditugu bidegorri sarea hobetzeko eta emaitzak hasi dira nabaritzen: urtero 10 milioi joan etorri egiten dira Gipuzkoan bizikletaz, duela hamar urte, halako bi.

3.3 ETXEBIZITZAREN ARAZOARI AURRE HARTU

Legealdi honetarako finkatu genuen hirugarren erronka da etxebizitzaren arazoari aurre egitea.

Etxebizitza bilakatu da herritarren kezka nagusi, langabezia, osasuna eta segurtasunaren aurretik. Pisu bat alokatu edo erostea kezka iturri da hamar herritarretatik zazpirentzat.

Arazoa orokorra da eta eskualde, herri, adin tarte eta pertsona orori eragiten dio edo diezaioke. Ikasketak amaitu eta gurasoen etxetik irten nahi duten gazteei; ikasketa edo lan kontuengatik herriz aldatu direnei; gurera bizitza proiektu berri bat hastera etorri direnei edota banandutako bikoteei.

Gipuzkoako etxebizitza parkearen egoera honakoa da: 350.000 pisu ditugu lurraldean; horietatik %82 jabetzan erosiak eta gainerakoak, alokairuan.

Jabetzak garrantzia handia du gure lurraldean. Eta uste dut errealitate hori ere kontuan hartu behar dugula etxebizitza politika publikoak diseinatzerakoan. Etxebizitza bat ez delako soilik teilatu bat. Pertsona eta familia askorentzat segurtasuna da, egonkortasuna eta bizi-proiektu bat eraikitzeko oinarrietako bat. Gipuzkoako langileentzat ere jabetzak funtzio garrantzitsua izan du belaunaldiz belaunaldi: lan egin, aurreztu, etxebizitza bat eskuratu eta pixkanaka norberaren etorkizuna eraikitzeko aukera eman du. Eta gazteen kasuan bereziki, uste dut aukera hori ez dugula alde batera utzi behar.

Gazte batek bere bizi-proiektua eraikitzeko borondatea badu, erakundeok ahalik eta tresna gehien eskaini behar ditugu aukera horiek errealitate bihurtzeko: hipoteka osatzeko abalak, etxebizitza erosteagatik zerga-kenkariak, gazteentzako laguntza fiskal handiagoak, gurasoek seme-alabei lehen etxebizitza erosteko egiten dizkieten dohaintzei tratamendu egokia ematea, eta, noski, prezio eskuragarriagoko etxebizitza kopurua handitzea.

Arazo hau tresna bakar batekin konpontzerik ez dago. Palanka guztiak norabide berean jarri behar ditugu, etxebizitzarako sarbidea ez dadin familiaren jatorriaren, aurrezteko gaitasunaren edo hasierako kapitala edukitzearen menpe soilik egon.

Horregatik, ez ditugu alokairua eta jabetza elkarren aurka jarri behar. Bi aukerak behar ditugu eta pertsona bakoitzak, bere egoeraren eta bere bizi-proiektuaren arabera, aukeratzeko parada izan behar du.

Azken erreforma fiskalean, hain zuzen ere, etxebizitzari lotutako kenkariak mantentzea defendatu genuen, eta gazteen kasuan zenbatekoak indartu genituen. Fiskalitatea politika publikoetan eragiteko tresna zuzena dela pentsatzen dugu eta etxebizitzarena bezalako erronka batean giltzarri izan daitekeelako horren aldeko apustu politikoa egin dugu. Beste lekuetan ez bezala.

Etxebizitzara bideratutako hobariak handitu ditugu: pisu bat erosteagatik eta baita alokatzeagatik ere. Azken errenta kanpainian, Gipuzkoako Foru Aldundiak 165.877 zergaduni lagundu die. 206 milioi euro bideratu ditugu etxebizitzara; horietatik 64 milioi, alokairurako eta 143 milioi, erosketarako. Ahalegina zenbatekoa den ikusteko gogoratuko dizuet Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontua 1.300 milioi eurokoa dela. Apustu politiko sendoa dago honen atzean.

Horrez gain, zenbait herri txikitan etxebizitza promozioak sustatzen ari gara bestela ez dagoelako etxerik bertan bizi nahi duten gazteentzako.

Gipuzkoako herri txikietan etxebizitzak bultzatzen ari gara eta 1.000 biztanletik beherako herrietan 50 etxe sustatuko ditugu. Etorlurren bidez Abaltzisketan hasi, eta Beizaman, Bidania-Goiatzen, Gaztelun, Altzon eta Alkizan ere proiektuak garatuz. Era berean, harremanetan gaude Leintz-Gatzaga, Orendain, Larraul, Zerain, Errezil, Albiztur, Oresa, Gaintza, Mutiloa, Belauntza eta Itsasondorekin ekimena zabaltzen joateko.

En la última reforma fiscal hemos aumentado las bonificaciones destinadas a vivienda tanto por la compra como por el alquiler de un piso, ayudando a 165.877 contribuyentes con una inversión de 206 millones de euros. 64 millones por alquiler y 143 millones por compra. Para que quienes nos escuchan se hagan una idea, el presupuesto de la Diputación es de 1.300 millones. Existe una apuesta política muy firme para facilitar el acceso a la vivienda. Además, siendo conscientes de que no existe interés de promoción urbanística, estamos impulsado la construcción de 50 pisos en régimen de venta en municipios de menos de 1.000 habitantes para que las personas jóvenes puedan desarrollar sus proyectos de vida en sus pueblos.

La cuestión de la vivienda ocupa un lugar prioritario en la agenda política de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3.4 GIPUZKOA BERDE ETA URBANOAREN ARTEKO OREKA LANDU

Laugarren erronka: Gipuzkoa berde eta urbanoaren arteko oreka.

Gure egitekoan garrantzia berezia du orekak. Gauzak zentzuz eta modu orekatuan egiteak.

Gurea lurralde txikia da, bizi-bizia eta kohesionatua. Urrun bezain hurbil daudelako Aralarko artzain txabola bat eta Miramongo parke teknologikoko start up bat. Denak dira osagarriak, denak behar ditugu, Gipuzkoa hain berezi egiten duten elementuak. Dira nortasuna eta gauzak ondo egiteko anbizioa.

Berrikuntzatik apustuak egin behar ditugu landaguneetan. Hemen ere erronkak handiak direlako eta babestu egin behar ditugulako. Behar dugulako landagunea. Abian jarri ditugun ekimenak dira, besteak beste:

Gaztenek. Azken 20 urteetan 350 proiektu eta gaztetik gora lagundu ditugu. Proiektu horietatik %90ak martxan jarraitzen du.

Baserritar Mixto Profesionala. Errelebo faltari heldu nahi dio profesionalen lanaldia erdira murriztuz. Hala, baserriko eta kanpoko lanaldia hobeto uztartzen dira.

Zerbitzu ekosistemikoak. Diru laguntza zuzenak aktibatu ditugu eta Gipuzkoako 700 ustiategi inguru izango dira onuradun. Bitartean, azterketa egiten ari gara unibertsitate eta ikerketa zentroekin nekazariei hobari fiskalak ezartzeko aukera zabaltzeko ematen duten zerbitzuengatik.

LandaGo. Mugikortasun autonomo eta berritzailea gerturatzen ari gara herri txikietara.

Herritarren Batzarra ere aipatu nahi dut, klabea izan delako: lehen sektorearen erronkak elkarlanetik identifikatu genituen urtebeteko lanaren ondoren eta hortik hainbat ideia atera ziren, politika publikoetara eraman ditugunak. Hau garrantzitsua da, gauzak nola egiten ditugun adierazten duelako. Beste inork ez du halakorik egin gurean.

Sindikatuarekin elkarlanean, **udan izandako lehorteeak eragindako ondorioei aurre egiteko ere lanean ari gara diru laguntza larri bat aktibatuzeko, 1,5 milioiko inbertsioarekin.** Destinaremos, por tanto, una línea de ayudas directa valorada en 1.5 millones de euros para ayudar a los y las baserritarras que siguen padeciendo las consecuencias de la sequía de los últimos meses. Estamos a su lado y compartimos su preocupación.

Basotik Fundazioa. Basoen kudeaketa egokia giltzarri da ez bakarrik suteen prebentziorako, baizik eta gure ingurune, paisaia eta nortasuna bera zaintzeko. Harrera oso ona izan du basojabeen aldetik: 900 familiatik gora agertu dira interesatuta, eta dagoeneko 200 kontratu baino gehiago daude sinatuta eta 1.600 baso hektarea kudeatzen ditu Basotikek. Helburua: baso-jabegoa errespetatuz, jabe txikien jarduna erraztea eta abandonua ekiditea, bultzada eta babes publiko batetik. Gainera, aldaketa klimatikoari aurre egiteko erreminta paregabea bilakatzen da.

Izan ere, **aldaketa klimatikoaren** ondorioak gero eta nabariagoak dira gure artean eta behar beharrezkoa da estrategia integral batekin erantzutea.

Jasangarritasuneko departamentuak bide orri zehatza dauka “Gipuzkoa Klima 2050” plangintzaren bidez.

Plan honek berotegi efektuko gasen emisioak murriztea sustatzen du trantsizio energetikoaren, mugikortasun iraunkorraren, uraren kudeaketaren edo ekonomia zirkularraren bidez. Aldi berean, erresilientzia neurriak ezartzen ditu itsas mailaren igoeraren eta muturreko fenomeno meteorologikoen aurrean, 2018an sortu genuen Naturklima Fundazioaren bidez koordinatuta.

Aipatzeko bi hito:

Bat: Naturklimak Borondatezko Karbono Funtza garatu du, 40.000 tona karbono konpentsatu dituen tresna.

Bigarrena: Autokontsumo partekatuko 82 energia-komunitate ditugu 67 udalerritan 13.000 familien parte hartzearekin. Honekin, energia berriztagarriak sortzeaz gain, fakturak murrizten dira.

Hondakinen kudeaketan ere erabateko aldaketa eman da 2015az geroztik, gaikako bilketa %49tik %60ra igaro delarik. Eta garrantzitsuen dena: hamarkada honetan hondakinen kudeaketaren arazoa konpondu da. Gure hondakinak beste lurralde batzuetara bidaltzetik punta puntako azpiegiturak izatera pasa gara, zabortegeien garaia atzean utzita.

Los residuos, otro ámbito en el que, afortunadamente, dejamos atrás la era de los vertederos para gestionar los residuos con infraestructuras de última generación. De un problema, pasamos a una oportunidad.

Aurten, gainera, beste urrats bat eman dugu herritarrek edukiontzi marroira botatzen dituzten hondakin organikoen bidez % 100 berdea den gasa sortzen duen azpiegiturarekin. Horri esker, etxeak, industriak eta enpresak hornitu ahal izango dira.

Eta aurrera jarraitzen dugu gainerako hondakin-frakzioei irtenbidea ematen, ehungintzako CPR (Berreskurapenerako Prestatzeko Zentroa) berehala abian jarriko baita. Urtean 4.500 tona tratatzeko gaitasuna izango du eta 110 lanpostu sortzea aurreikusten da; horietatik % 55 inguru gizarteratzekoak izango dira.

3.5 GIPUZKOAR BERRIAK ONDO ARTATU ETA GIZARTE KOHESIOA ONDO ERAIKI

Gipuzkoa ikaragarri aldatu da azken urteetan.

Zorionez, hainbeste kalte eragin diguten indarkeria eta terrorismo garaiak atzean utzi ditugu eta gaur, Gipuzkoa, mundura irekita dagoen lurralde

oparo eta anitza da. Ondo errotuta eta nazioartera zabalik dagoen herri txikia da gurea; puntako ekonomia, babes sistema, ongizatea eta ezaugarri konparaezinak dituena.

Gaur egun, 99.690 atzerritar bizi dira gure artean, duela hamar urte baino %60 gehiago, eta gure lurraldean 130 hizkuntza ezberdin hitz egiten dira.

Kanpotik etorritako Hondarribiko arrantzalea, Hernaniko barberra, Multiverseko ingeniaria, egoitza bateko zaintzailea, Alde Zaharreko sukaldaria eta ingeleseko irakaslea. Asko eta oso anitzak dira iritsitako lagunen profilak, identidadeak eta hizkuntzak eta horrek guztiak aldaketa handiak ekarri ditu gure gizartera.

Moha, Carla Valentina eta Alina gurera etorri dira, gure arbaso askok iraganean egin zuten bezala. Hemen bizi dira, hemen egiten dute lan, hemen ari dira beren bizi-proiektua eraikitzen eta haien seme-alabak hemen hazten ari dira. Haiek dira gipuzkoar berriak: beren lanarekin, ahaleginarekin eta eguneroko ekarpenarekin lurralde hau aberasten eta eraikitzen laguntzen duten pertsonak. **Gizpuzkoa berria** eraikitzen ari gara guztion artean. Eta ondo egin behar dugu.

Ezberdinen arteko koexistentzia batetik benetako bizikidetza batetara pasa behar dugu, elkarren ondoan bizitzetik errespetuzko, lankidetzazko eta parte-hartze aktiboko harremanetara igarotzeko. Kanpotik etorritakoak ere badira gure «gu» horren parte eta «gu» horrek zerbait partekatzea eskatzen du.

Gizarte bat ez baita pertsonak toki berean pilatuta egote hutsa. Gizarte bat lotura da, konfiantza da eta elkarrekiko errespetua da. Eta bertako kide izateak esan nahi du, jatorria edozein dela ere, guztionak diren espazioak zaintzea, bestearen eskubideak errespetatzea eta gure eguneroko bizikidetza posible egiten duten oinarrizko arauak onartzea.

Gure lurraldearen etorkizuna kanpotik etorritako pertsona horiekin eraikitzen ari gara. Gure zaintza sisteman, enpresetan, ostalaritzan, merkataritzan, eskoletan, herrietan, kirol elkarte eta auzoetan.

Gure erronka ez da aniztasuna onartu edo ez erabakitzea. Aniztasuna hemen dugu jada. Erronka da nola eraikitzen dugun aniztasun horretatik abiatuta gizarte kohesionatu bat, elkarrekin bizitzen dakiena, konfiantzazkoa eta nortasun propioa duena.

Horretan ere geure buruari exijitu behar diogu. Erakundeok lehenengo. Arazoei garaiz erantzunez, herritarren kezkak entzunez, integratziorako aukerak sortuz eta elkarbizitza apurtzen duten jokabideen aurrean irmotasunez jokatzuz. Baina baita gizarte bezala ere, gure balioak transmititzen jakinez eta gure artean bizitzera datorrenari komunitate honen parte izateko ateak benetan irekiz.

Gure herria abegikorra eta humanista izan da beti, eta hala izaten jarraitu nahi dugu. Aukerak eskaintzen dituen lurraldea. Etortzen denari aukera ematen diona lan egiteko, ikasteko, familia bat osatzeko eta bere bizi-proiektua eraikitzeke. Baina, aldi berean, komunitate bat garela ulertzen duen lurraldea, eta komunitate batek elkarrekiko errespetua, arau partekatuak eta guztiona denarekiko konpromisoa behar dituela. Elkarrekin bizitzen jakin.

Hori da, niretzat, benetako integrazioa. Ez norbaitek bere jatorriari uko egitea, ezta denok berdina izatea ere. Gizarte bereko parte garela sentitzea da. Eskubideak partekatzea, betebeharrak partekatzea eta pixkanaka «gu» gero eta zabalago bat eraikitzea.

Gipuzkoa beti aldatu da eta aurrerantzean ere aldatzen jarraituko du. Gure ardura da aldaketa hori ondo egitea: irekitasunetik, elkarrekin bizitzen jakitetik, erantzukizunetik, aniztasuna aitortuz, komunitate bat garela ahaztu gabe.

Azkenik, gizarte kohesioari zuzenean eragiten dion elementu bat jorratu nahi dut: segurtasunarena. Herritarren kezka iturri dena.

Badira arazoak auzo eta hirigune batzuetan. Segurtasunaren inguruan ere hitz egin behar dugu gizarte kohesioaren ikuspegitik, arazoak puztu gabe, baina ezta ezkutatu ere.

Gizalege faltak, zaratak, espazio publikoaren erabilera desagokiak, besteenganako begirune faltak edo gauez beldurrez ibiltzeak apurtzen dute gizarte kohesioa. Eta eragiten diote segurtasun falta sentazioari.

Horri ere erantzun behar diogu.

Delitua egiten duenak legearen erantzuna jaso behar du. Argi eta garbi. Are gehiago: nire ustez, arauak argi izateak eta guztiontzat berdina aplikatzea bizikidetzak babesten du, eta muturreko diskurtsoei argudioak kentzen dizkie.

3.6 DEMOKRAZIAN URRATSAK EMATEN JARRAITU

Indar komunitario handia duen lurraldea da Gipuzkoa. Milaka herritar konprometitzen dira komunitatearekin euren borondatez, izaera anitzetako elkarte eta taldeen bitartez, dela hezkuntzan, euskalgintzan, gizarte babesean, kulturgintzan, kiroletan edota herrigintzan. Balioak daude ekimen horien guztien oinarrian; gipuzkoar komunitate bizi eta sendoaren balioak. 8.000 elkarte ditugu gurean.

Azken urteotan, Aldundiaren jardunaren muinean sustraitzen dihardugu etenik gabeko hartu-emana herritarrekin, gizarte antolatuko eragileekin eta gainontzeko erakundeekin, herri politikak elkarlanean sortzeko helburuarekin. Apustu sendo eta serioa egin du Gipuzkoak lankidetzazko gobernantzan. Kolaborazio hori proiektu konkretu eta berritzailetara eramán dugu. Arantzazu Lab ere sortu dugu helburu horrekin.

Legealdi honetan urrats berriak eman ditugu ahalegin horretan.

Orain dela hiru urte pasatxo, diputatu nagusi izateko gure hautagaitza proposatu genuenean, aurreratu genuen igaroko ginela Gipuzkoako plazatik Gipuzkoako plazetara. Ez zela izango bulegoko legealdia. Eta horretan ari gara buru-belarri. Horren lekuko, hilabeteen behin udalerri batean egiten dugun Aldundiaren diputatuen kontseilua. Dagoeneko 25 herritan burutu dugu ekimena. Tokian tokiko egitasmoak bertatik bertara ezagutzeaz gain, lurraldeko udalekin harremanak estutzeko parada eskaintzen digute bilkura hauek. Elkarlanean sakondu eta erabaki nagusiak Donostian ez ezik, Leintz Gatzagan ere hartzen ditugu.

Batzar Nagusi hauek ere lankidetzaz horren lekuko izan dira. Horretan ere, legealdi hasieran azpimarratu moduan, buru-belarri aritu gara eta arituko gara.

Akordioen legealdia izan da 2023an hasitako hau. Apaltasunez diot, izan ere, honetan ere ardura konpartitua da. Akordioak lortu ditugu, besteak beste, azken bi aurrekontuak onartzeko bai eta erreforma fiskala onartzeko. Eskerrak eman nahi dizkiet espreski akordioak lortzeko borondatea izan duten bi alderdi politikoei. Lurraldea lehenetsi dutelako siglen gainetik.

Tamalez, eta azpimarratzen dut, tamalez, Batzar Nagusi hauetan bada talde bat adostasun nagusietatik kanpo gelditu dena bere borondatez. Foru aurrekontuak dira horren adibiderik argiena: dagoeneko hamaika aldiz esan diete ezetz.

Herrigintzan gaude. Bakoitzak aukeratzen du bere lekua eta ekarpena.

Guk Gipuzkoan azken urteotan sendotzen ari den elkarlanaren kultura lehenesten dugu: desberdinen artean hitz egitea, adostasunak bilatzea eta lurraldearen interesak alderdien interesen gainera jartzea. Denborak, gainera, badu gauza on bat: eztabaida politiko askori perspektiba ematen die.

Garai batean mespretxatu zituzten hainbat figura, denborarekin, aldarrikatu egin dituzte.

Bide demokratikoen balioa, autogobernuaren eta Gernikako Estatutuaren defentsa, Agirre, Leizaola, Garaikoetxea edo Ardanza lehendakariak gure herriari egindako ekarpena... Zenbait aitortza iritsi dira. Nahi baino beranduago.

Algo similar ocurre con determinados temas de gestión. Sucedió con Bidegi, con la gestión de los residuos y con las pistas de Aralar, por ejemplo. Fueron combatidas con gran dureza y gran enfrentamiento político, llegando incluso al señalamiento personal. Con el paso de los años, nos encontramos en una situación radicalmente diferente hasta el punto de que hoy en día los acuerdos de GHK se adoptan por unanimidad y en Aralar vamos a construir tres pistas más tras un acuerdo amplio. Es una buena noticia.

Sería bueno para Gipuzkoa que ese cambio de estrategia se reflejara también en las apuestas de futuro que la Diputación de Gipuzkoa está trabajando hoy. Me refiero a Mubil, Adinberri, tecnologías cuánticas y biociencias, que tienen su reflejo en los presupuestos.

No voy a volver a preguntar su opinión sobre estos proyectos. Siempre me he encontrado con un silencio por respuesta. La pregunta es otra: ¿cuándo van a dar su opinión al respecto? ¿Dentro de diez años? ¿Dentro de veinte años?

La experiencia nos enseña que el rumbo es tan importante como el tiempo de reacción. Por eso trabajamos hoy el futuro de mañana.

Gipuzkoa está tomando ahora las decisiones de futuro y por eso estamos dialogando, negociando y acordado con quienes tienen voluntad para ello.

Por eso, a pesar de todo, pero con la misma firmeza, les sigo ofreciendo la mano para lograr acuerdos que sean buenos para Gipuzkoa.

Zuen esku dago, dagoeneko foru aurrekontuei emandako 'hamaika' ezezko horiek hamaika bakarrik izatea, hamaika zifra mugatua, edota nahiago duzuen 'hamaika' hitzaren euskarazko adiera mugagabeen tematuta jarraitzea.

Denborak esango du.

Datozen hilabeteetan jokoan egongo da demokraziak eta Europak hartuko duen norabidea, hainbat hauteskunde hitzordu garrantzitsu biziko ditugu eta hainbat herrialdetan. Muturreko korrante ideologikoak, autoritarismoa, ultra eskuina, mehatxu dira demokraziarentzat eta Europarentzat. Garai zailen atarian jarri gaitzake halako korrante ideologikoen balizko gorakadak.

Guk zer egin dezakegu, erakunde nahiz herritar bezala, demokrazia defendatzeko?

Demokrazia aldarrikatu, egunero.

Demokrazia ez da defendatzen aldarri politikoekin bakarrik. Ez da borroka politikorako jaurtigaia edo modu estetikoan erabiltzeko aldarria. Demokrazia defendatzen da eguneroko erabakietan. Maila guztietan elkarlana eta elkar ulertzea bultzatzen, akordioak bilatzen, erakundeon arteko errespetua eta lankidetzaren esparruak sortzen, herritarrekin aurrez aurre hitz eginez, aurpegia emanez, balio demokratikoen eta elkarbizitzaren aurkako gertaerak salatzen...

Eguneroko lanarekin eraikitzen sendotzen dugu demokrazia, eta horretan buru-belarri dabil Gipuzkoako Foru Aldundia.

Herri ordezkariok ezinbestekoa dugu guk ere zorrotasunez, transparentziaz eta gobernu onean sakonduz aritzea.

Tamalez, oso ohikoak bilakatu dira krisialdiak erabiltzea zatiketa eta sestra politikoa eragiteko, arazo konplexuen aurrean, biktimismoan erortzea; edota ardurak gainontzekoei bakarrik egozte, eta sekula ez norberari.

Honi gehitu nahi diot, azkenaldian, zoritxarrez, gorrotoaren mezu gehiegi datozkigula alde guztietatik. Gorrotoa etorkinei, gorrotoa arerio politikoari eta gorrotoa erakundeei. Diskutso horiek errotik baztertu behar ditugu, ez diskurtsoetan bakarrik, gure eguneroko jardunean ere bai, kultura demokratikoaren aldeko pedagogia eginez, gure ekintzen bidez.

Izan ere, ondo baino hobeto ezagutzen dugu zer galtzen den demokrazia galtzen denean. Gogoan izan duela 90 urte faxismoak gure Herriari ekarri

zion kaltea eta eskubideen urraketa, berriki Leizaola Lehendakariaren omenaldian gogoratu dugun bezala.

Ondo baino hobeto ezagutzen dugu gure Herrian gorrotoak eragin zuen indarkeria eta sufrimentu ikaragarria. Zorionez, 15 urte daramatzagu indarkeriarik gabe, bakean bizitzen, ETAk behin betiko armak utzi zituenetik.

Balio demokratikoak sustraitu behar ditugu. Demagogia, populismoa eta autoritarismoaren aurrean, elkarbizitza demokratikoak ahalbidetzen duelako konfiantza eta elkarlana. Eraldatzen ari den munduan, erantzun sendoak topatzeko modu bakarra delako.

Badago zer egina oraindik.

Aldi berean, **autogobenuan aurrera egin.**

Gure herrian pertsona askok eta askok, lehen eta orain, asko eman dute balio demokratikoen alde. Pertsona askok, asko eman dute elkarbizitzaren eta Giza Eskubideen alde, duintasunez eta bakean euren iritziak defendatuz, herria akordioen bidez eraikiz. Eta, horrekin batera, urratsez urrats gure herria joan da bere erakundeak berreskuratzen, bere burua gobernatzeko duen eskubideari bidea ematen. Zailtasunak zailtasun, joan gara euskal autogobernua, euskal erakundeak eraikitzen.

Horregatik, gure herrian demokrazia aldarrikatzeak eta defendatzeak, exijitzen du baita ere autogobernua defendatzea, euskal erakundeon lana eta eskuduntzak –guzti guztiak– defendatzea. Herriaren borondateari bidea ematen diotelako eta ongizate iturri direlako. Horregatik, espero dut bide onetik joango direla Euskadiko hiru alderdi nagusiek estatus berria adosteko abiatutako bidea. Gogoratu nahi dut egungo estatutoa betetzeke dagoela oraindik, onartu zenetik 47 urte igaro diren arren. Herri honi emandako hitza betetzeke dago.

Demokrazia defendatzeak berekin dakar gure herriaren autogobernurako tresnak defendatzea, horiek aurrera eramateko gure erakundeak defendatzea, gure hizkuntza propioa defendatzea.

Euskarari lotuta, kezkaz ikusten ditut azken urteotan, euskararen biziberritzeari trabak jarritz, hainbat eremutan jada mamitu diren jarrera eta diskurtso atzerakoiak.

Orain dela 40 urteko Gipuzkoa eta gaur egungoa ez dira gauza bera. Hizkuntza berdintasunean aurrera egin behar dugu. Adostasunetan

oinarrituz, adituen gomendioak jarraituz, borondateak batuz, estrategia berritzaile eta eraginkorrak artikulatuz.

Norabide horretan, lankidetzatik eta berrikuntzatik, ekarpena egiten saiatu da Gipuzkoako Foru Aldundia azken urteotan hiru ekimen garrantzitsurekin.

Bat: **Gipuzkoa Arigune**. Aia, Antzuola eta Donostiako Añorga auzoan komunitatea euskararen inguruan josteko lanketa egin da. Emaizak laster plazaratuko ditugu, baina itxaropentsuak direla aurreratu dezaket euskararen ulermena orokortzeko eta euskara erabiltzearen aldeko kultura indartzeko.

Bigarrena, **euskarazko administrazio unitateak**. Aldundiak, arreta euskaraz ematea bermatzetik harago, euskaraz lan egin nahi du. Arnasgune izan.

Hirugarrena da **adimen artifiziala**. Euskararen etorkizuna jokoan dagoen eremu nagusietakoa da. Horregatik, Euskal Herriko Unibertsitateko HiTZ Zentroaren eta Euskorporaren esku jarri ditu Aldundiak bere jabegokoak diren eduki eta datu corpusak, euskara adimen artifizialeko teknologietan integratzeko.

Economía sólida, protección social y democracia. Los abordaremos desde la anticipación mediante la colaboración. Son elementos fundamentales para seguir construyendo la Gipuzkoa del futuro.

Jon Sarasuari orain gutxi irakurri nion bezala, denborak azkarregi doaz eta “azelerazio noragabetuan” dago gure zibilizazioa. Burua altxatzea kostatzen zaigu, gure burbuilatik atera eta haratago begiratzea, hurkoarengan eta komunitatearengan pentsatzea. Ezberdinen arteko adostasunak bilatzea. Elkarlana egitea.

Ni prest egon naiz. Prest egoten jarraitzen dut eta prest egongo naiz elkarlana sendotzeko guztiekin, baita beren burua akordioetatik kanpo utzi dutenekin ere.

Herri honek poz handiz hartuko luke denon arteko lankidetzak. Denon beharra dugu eta. Nik horretan sinesten dut.

Posizio horretan aurkituko nauzue diputatu nagusi bezala. Hemendik aurrera ere, elkarlanean adostasunak bilatzen arituko naiz. Akordioak bilatuz, beti, Gipuzkoaren onerako. Pertsona guztien onerako.

Ziur nago, lankidetzan jarraitzeko gai bagara, Leteren abestia gogoan, asmatuko dugula guztion artean “bide on bat aukeratzen”. Eskerrik asko.